

Zenbat gara

Antton Izagirre

Pasa berria den aurtengo Aberri Eguna, zenbat garen galderaren jirabiran emaniko bi proiektzioen aurreikuspenek hauspotuta iritsi zaigu. Eta hor sortu dira komeriak, zenbat garen adierazteko emaniko portzentajeak arras desberdinak izan direnean. Bazirudien lehen irakurketa batean bi prospekzioak gai beraz ari zirela; hau da, zenbatekoa da Euskal Herri independentearen alde legokeen masa kritikoa? Hala balitz, nola liteke prospekzioetako batek emandako portzentajeak besteak emandakoa bikoiztea?

Badakigu antzeko proiektzioak egiten direnean jendartearen iritzi eta ikuspegiaren gaineko aurreikuspena izateko asmo zientifikoen ondoan badirela beste-

lakoak ere, iritzi eta ikuspegia bera baldintzatzearena, hain zuzen ere.

Aipaturiko bi lanetako batean beren burua independentistatzat zuten herritarrak kontatzen zituzten ondorengo proiektzioaren iturburu izateko. Aldiz, Euskal Estatu berri bateko kide izateko borondatea erakusten zuten herritarrak hartzen zituen abiapuntutzat bigarrengoak.

Gauza bera ez al den galdetu lezake edonork? Kontua ez da gauza bera ote den edo ez. Kontua da imajinario kolektiboan nola irudikatzen duen gizabanakoak edota giza talde batek independentzia edo Euskal Estatu. Badirudi bi kontzeptu horiek euskal herritarrongan sortzen duten pentsamendu eta iruditegia desberdina dela.

Esan liteke aurkariak irudikatu izan duten independentziari buruzko kontzeptu zurrinak, hertsia eta bertikalak, muga eta berekoikeriaz josiak, eragin ezkorra izan duela euskal herritarron aurrejuzkuean, eta, ondorioz, erabaki gaitasunean. Aldiz, modu berean ondoriozta daiteke Euskal Estatu berri baten kide izateko aukerak, sentimendu ireki eta zabalagoak, osatze-ar dagoen komunitate berri bateko kide sentiarazten gaituela eta hortik letorke hautua egiterakoan gehiengo zabalagoa alde agertzea.

Hala izan edo ez, euskal herritartasun berri bat eraikitzen ari garela ez dago zalantzarik eta horretan hizkerak duen garrantzia aintzat hartzekoa ez ezik, erabakigarria ere izan liteke. •

Donostia, zinismoaren hiriburua

Andoni Egia

Asko idatzi da Donostia 2016 egitasmoari buruz, asko bai, baino ez dakit nahikoa izan den. Edonola ere, ez nator ni Europako Kultur Hiriburutzaren inguruan gogoeta berri eta erudito bat egitera, baizik eta duela aste pare bat, Hiriburutzaren baitan ospatu zen Stop War festibalak sortu zizkidan sentimenduak plazaratzera.

Bai, badakit Kultur Hiriburutzaren istorio honek guztiak kapitalismoak globalizazioaren baitan inposatzen duen ekonomia politiko eta espazial berrian duela sorrera eta helmuga. Hau da, nazioarte mailako zentro-periferia sistematik eratortzen den lan banaketak Donostia bezalako hiriei gorde dien funtzioan, balio txi-

kia duten ekoizpen prozesuak periferiara deslokalizaten diren bitartean, gu nazioarteko kapitalak, merkantziak eta turistak ehizatzen kondematurik gaude. Horretarako hainbeste kultura, horretarako hainbeste bizikidetza. Ados. Ados ez, baino izorrai. Bakoitzak euts diezaiola bereari, eta guk sal diezaiegun hiria, sal gaitezen osorik. Eta gero, egin dezagun negar, Bartzelonan egiten duten bezala.

Stop War festibalarena, ordea, ezberdina da. Gerren kontra egin den aldarri instituzional handiena –eta bakarra– bizi izan dugu, denak ala denak batu, eta denok batera “Gerrari ez!” oihu egitera gonbidatu gaituzte, asteazkenetik igandera, goizeko hamarretatik gaueko hamabietara. Ergel

nahi gaituzte eta ergelduak gaituzte kaskatzuta dugun kontzientzia garbitzeko ere balio ez duen performance erraldoian parte hartuz. Esan diezaiegun ez gerrari, esan diezaiegun ez biolentziari, altxa dezagun Kultura mota guztietako bortxaren aurka, arimarik ere ez duten bizardun horien kontra. Baina ez dezagun ahaztu 2016 egitasmoaren atzean den Europako Batzordea bera dela duela bost urte El Assaden kontrako gerra sustatu zuenetako bat. Edo kontzertuak entzuten ari ginen une berean Europako mugak itxita zeuzkatela eta, geure historiari barre eginez, milaka erre-fuxiatu deportatzeko plana aurkeztu eta gauzatzen hasiak zirela. Begian pixa egiten digute eta euria ari duela diogu. •